

Gurasoak agur,

Mezu honen bitartez, ikastolako oharrak bidaltzen dizkizuegu.

OHAR OROKORRAK (OO)

OO. MATRIKULAZIO KANPAINA

2020-2021 ikasturteko matrikula egiteko epea urtarrilaren 27tik otsailaren 7ra egongo da zabalik. Azken ahalegintxoak. Astebete falta da matrikulazio garaia bukatzeko. Oraintxe da unea. Segi mesedez, bideo hau ere sare sozialetan partekatzen, batez ere whatsapppeztaldea guztietara bidaltzen. Ameslagun gehiago nahi ditugulako. Ameslagun gehiago behar ditugulako.

"ZATOZ GURERA!"

LAGUNDU MEZU HAU ZUEN INGURUAN ZABALTZEN!

OO. LOTERIA

Dakizuen bezala Gabonetako Loterian jarri adinako saria tokatu zaigu, hau da, txartel bakoitzeko 4 €. Ordainketa **ostiralean, 14:00etatik 17:00etara** egingo da idazkaritzan. Kobratzeko azken eguna: martxoak 20.

OO. "TANTA" EKIMENA

Dakizuen bezala, Euskal Herriko Ikastolen Elkarteak **TANTA** proiektua jarri du martxan. [Informazio gehiago](#).

Kontuan izan:

TANTA TXARTELA: 5 euro

SARIA: 60.000 euro

Salgai ditugu ikastolako idazkaritzan

OO. ARROPAREN KUTXA HUSTU EGINGO DA

Datorren ostiralean, otsailaren 7an, sarrera nagusian dagoen arroparen kutxa hustu egingo da. Beraz, norbaitek arropa galdu badu egun hau baino lehen pasa dadila begiratzera.

OO. TXIRRINDULARIENTZAKO OHARRA

Igande honetan, otsailaren 2an, Ikastolako txirrindulari taldeak irteera antolatu du. Ikastolan elkartuko gara goizeko 09:00etan. Ibilbidea: Mutrikura joan etorria. Talde honen helburutako bat, bizikletaz ibiltzea gustuko zaigunoi, noizean behin elkartu eta bueltatxo bat ematea da. Animatu eta giro onean joango gara.

OO. Hitzaldia: "Errukiaren balioa krisi-egoeran dagoen komunitate batean"

"Zarautz, Herri Zaintzailea"ren mezua:

Datorren **ostegunean, otsailak 6**, zuekin bat egin nahi dugu berriz ere, **19:00etan, Zarauzko Antoniano aretoan**. Gonbidatzen zaituztegu "Errukiaren balioa krisi-egoeran dagoen komunitate batean" izenburupean, Tew Bunnag, Vinyana Elkarte kide sortzaile eta ohorezko presidentearekin batera antolatu dugun hitzaldian parte hartzera. Tew Bunnag Bangkok-en jaio zen. Cambridge-ko Unibertsitatean txinera eta ekonomia ikasi ondoren, bere heziketa espirituala Trugpa Rimpoche-ekin hasi zuen eta Chao Khun Sobhana Dhammasuddhirekin jarraitu zuen, garai hartan Buddhapadipa tenpluko abadea zena eta orain Dhiravamsa bezala ezagutzen dena. Meditazio eta tai chi-ko irakasle laikoa izan da eta 2000. urteaz goerotik Bangkokeko *The Human Devopment Foundation*-ekin lanean hasi zen. Halaber, bertako batzordekide eta Hospiceko laguntzailea izan zen, HIESa duten haur eta gurasoentzat. Gustatuko litzaiguke ekitaldi honetan gurekin bat egitea. Besarkada bat.

HH OHARRAK (HH 2 - LH2)

LH 2.ZIENTZIA MUSEORA IRTEERA

Datorren **otsailaren 6an, osteguna, Lehen Hezkuntzako 2. mailako** ikasleekin **Donostiako Zientzia Museora** joango gara. Bidaia **autobusez** egingo dugu eta ikasleek hamaiketako eta bazkaria eraman beharko dute, ikastolako ohiko ordutegia mantenduko delarik. Bestalde, bidaiaren kostua **16 €** izango da. **Kopuru hau otsaileko kuotarekin batera kobratuko zaizue.**

Besterik gabe, jaso gure agurrik beroena.

ZUZENDARITZA

Estimadas familias,

Mediante el presente correo, les hacemos llegar las notificaciones referentes a actividades o información significativa.

OHAR OROKORRAK / NOTIFICACIONES GENERALES (OO)

OO. CAMPAÑA DE MATRICULACIÓN

El plazo de matrícula para el curso 2020-2021 estará abierto del 27 de enero al 7 de febrero.

Un último esfuerzo. Falta una semana para que finalice el periodo de matriculación. Ahora es el momento. Por favor, sigue compartiendo este vídeo en las redes sociales, sobre todo enviándolo por whatsapp a todos tus grupos conocidos. Porque queremos más amigos y amigas. ¡Porque necesitamos más compañeros y compañeras de sueños!

["ZATOZ GURERA!"](#)

¡GRACIAS POR AYUDARNOS A DIFUNDIR ESTE MENSAJE!

OO. LOTERIA

Como sabéis, nos ha tocado un premio igual al que se puso en la Lotería de Navidad, es decir, 4 € por boleto. El abono se realizará **los viernes de 14:00 a 17:00 en Secretaría**. Último día de cobro: 20 de marzo.

OO. PROYECTO "TANTA"

Como sabéis, la Federación de Ikastolas ha puesto en marcha el proyecto TANTA.

PARTICIPACIÓN: 5 euros

PREMIO: 60.000 euros

Están a la venta en la Secretaría de la Ikastola.

OO. SE VACIARÁ LA KUTXA DE ROPA

El próximo viernes, 7 de febrero, se procederá al vaciado de la kutxa de ropa situada en la entrada principal. Si alguien ha perdido alguna prenda, debe pasar antes de este día a comprobarlo.

OO. NOTA PARA CICLOTURISTAS

El próximo domingo, 2 de febrero, el grupo de ciclistas de la Ikastola ha organizado una salida. Nos reuniremos a las 09:00 en la Ikastola, para ir a Mutriku y vuelta. Uno de los objetivos de este grupo, es reunir a los amantes de la bicicleta y juntarnos de vez en cuando para realizar salidas en grupo.

OO. Charla. La Compasión en una Comunidad en Crisis

Mensaje de "Zarautz, Herri Zaintzailea": De nuevo conectamos con vosotr@s para proponeros una cita para el próximo **jueves día 6 de febrero, a las 19:00 h, en el salón Antoniano de Zarautz**. Os invitamos a participar en la charla que hemos organizado con [Tew Bunnag](#), miembro fundador y presidente de honor de la [Asociación Vinyana](#), bajo el título de "Utilidad de la Compasión en una Comunidad en Crisis". Tew Bunnag nació en Bangkok y tras estudiar chino y economía en la Universidad de Cambridge, comenzó su formación espiritual con Trugpa Rimpoché y continuó con el Ven, Chao Khun Sobhana Dhammasuddhi, el entonces abad del Templo Buddhapadipa, ahora conocido como Dhiravamsa. Ha sido profesor laico de meditación y tai chi y desde al año 2000 comenzó a trabajar para The [Human Devlopent Foundation en Bangkok](#) y fue miembro de la Junta y colaborador en su Hospice para niños y madres con sida. Nos encantaría que nos acompañaseis en este acto.

HAUR HEZKUNTZA / E. INFANTIL (HH 2 – LH 2)

LH 2.SALIDA AL MUSEO DE CIENCIAS

El **próximo jueves día 6 de febrero** acudiremos a visitar el **Museo de la Ciencia de Donostia** con los alumnos y alumnas de **2º Curso de Primaria**. El viaje lo haremos en **autobús** y como es habitual, los alumnos y alumnas deberán llevar el hamaiketako y la comida. Por lo demás, el horario de la Ikastola será el habitual. **El importe total de la salida es de 16€ que se cobrarán junto al recibo de febrero.**
Besterik gabe, jaso gure agurrik beroena.

ZUZENDARITZA